

ARAMAIO: GERRAN GALDUTAKOAK




Map data: ©2025 Google / Badihardugu Euskara Elkarte

1936ko gerra garaian Aramaion izandako gertaera batzuk batu ditugu ibilbide honetan.

Hirian izan ziren tiroketa, bonbardaketa, fusilamendu eta atxiloketekin lotutako pasadizo batzuk, lekukoek beraiek kontatuta.

Gerrako Ahotsak
proiektuan jasotako
ahozko testigantzetan oinarritua.



testigantza eta
informazio gehiago
online mapan



Badihardugu
Deba Ibarreko Euskara Alkartia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa Nagusia
Giza Eskubideen eta Oraineko
Historikaren Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos
y Memoria Histórica

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 KARTZELA UDALETXEAN



Lekukoa: Paula Unzueta Etxebarria

Aita atxilotu egin zuten San Martin egun batez. Atxilotu zutenetako bat lehengusua zuen. Aramaioko kartzelan sartu zuten. Zortzi egun inguruan herrian eduki eta gero, Gasteizera eraman zuten. Han hilabete egin ostean jaregin zuten.

2 KALEAK ETA KUARTELA GARBITZERA ZIGORTUA



Lekukoa: Domeke Elexpuru Altube

Domekeren bila etxera etortzen ziren, Nazionalen ospakizunetan dantza egitera joan zedin. Frantzia egondako denak, herriko kaleak garbitzera behartu zituzten. Ilerik ez zieten moztu.

3 KUARTELA ETA GALDEKETAK



Lekukoa: Maria Angeles Beitia Oruna

Zalgoko auzoan zegoen kuartela baina kaletik ere ibiltzen ziren. Galdeketa egin zioten frankistek, baina bera lasai zegoen, ez zekielako herriko berri. Hainbat pertsona hil zituzten. Gero mitinetara joaten behartzen zituzten, baina bera ez zen inoiz joan.

4 AITA ERAMAN ZUTEN ETA EZ ZUEN GEHIAGO IKUSI



Lekukoa: Mauri Lasaga Belategi

Aita gerra denboran etxetik eraman zuten aitortpena ematera, eta ez zuten gehiago bere berririk izan. Aita etxetik eraman zutenak aramaioarrak ziren, baina gero ukatu egin zuten aita eraman izana.

5 ABIOI BATEK METRAILATU ZUEN



Lekukoa: Patxi Elejalde Plazaola

Hainbat egunetan egon zen frontea Aramaion: Elorrio aldera, gudariak; eta, Aretxabaletara aldera, nazionalak. Gatzagara ihes egin zutenerako, ganaduak galduta zituzten. Ahuntzak zaintzen zegoela, abioi batetik metrailatu zuten Patxi, baina ez zuten asmatu jotzerakoan.

6 BONBAK BASERRIKO TEILATUAN ERREBOTATU ZUEN



Lekukoa: Joxe Beitia Oruna

Aramaio bonbardatu zutenekoa. Bonba batek Joxeren etxeko teilatura "salto" egin zuen, eta beheko zelaian sartu zen. Untzilla inguruan hildakoak izan ziren.

★ KRUTZETAKO KAROBIKO GORPUAK



Lekukoa: Fermin Etxebarria Elorza

Gorputz asko erdi lurperatuta geratu ziren. Azpeitiar batek prestatutako segada azaltzen du. Kurtzetako karobi handi bat hildakoen gorputzez bete omen zuten. Urteetan ikusi izan ziren garezurak mendietan.

★ BONBEK HAZIAK EREIN ZITUZTEN



Lekukoa: Pedro Karetxe Urrejola

Ganbaran sekula-belar haziekin betetako zaku bat zegoen zintzilika eta bonba batek etxe osteko soroan erein zituen haziok. Pedoren etxe inguruan harrapatutako sei miliziano fusilatu ondoren, bonba-zulo batera bota zituzten.

★ OLETAN GERRAKO "ABANZADA"



Lekukoa: Pedro Karetxe Urrejola

"Abanzea" etorri aurretik, Oletako etxeetan miliziano gipuzkoarrak egon ziren. Kurtzeta gainean tiroketa gogorak izan ziren. Oletako etxe asko suntsitu zituzten bonbardaketetan. Egun haietan berak ikusitakoak azaltzen ditu.



testigantzak entzun

